

IRITZIA
Pello Rubio

ERREPORTAIA
Urruneko
parajeetatik
bueltan

BARRREN

1997ko irailaren 12a
V. urtea - 205. zkia.

E L G C I B A P K (s)

A S T E K E R R I A

UDALETXETIK
AEK eta Udalaren
arteko akordioa

BERBETAN
Edu Arrillaga
argazkilaria

KIROLA
Haundiko jokalariaz
97-98 deriboraldian



Abuztuko abenturen arrastoan

"Pertsona bat bidaiatzera irtetzen da eta beste bat da bueitatzen" • e'r Matthissen



LENIZ

OiritTflefIK BIDEBARRIETA, 16 TEL: 20 23 38 EIBAR

Larrañaga autoeskola



Aprobetxatu

udaUTn


ateratzeko

lzena ematerakoan %10eko

beherapena Gazte Txartelarekin

Santa Ana, 11 Tel: 74 11G 11 ELGOIBAR

ff



PELLO RUBIO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena ankeratzen du.

Erne Dolly-rekin

Dolly ardi berezia da. Bere amaren berdin-berdina da, kopia hutsa, beste ardi baten klon. Geneen manipulazioaren teknikari esker bera sortzeko ez da aharirik behar izan. Ez da animalioak berzkoa dugun maitasun jolasik egon. Bizidun guztiok geurea dugun ADN edo geneak aldatzearen ondorioa da Dolly. Horrexegatik ardi transgenikoa esaten zaio.

Teknikaren asmatzaileek oso gustura eta pozik daude. Beraien ustez aurrerapen ikaragarria da. Izan ere, modu honetan aberirik onena hauta daiteke, esne gehien ematen duena, okelarik onena duena eta nahi beste kopia egin. Honela janari ugari izango genuke gure beharrak asetzeko.

Baina egia ote da hori guztia? Ez ote du ipuin politegi baten itxura?

Dolly ez da transgeniko bakarra. Nahikotxo dira nekazaritzan erabiltzen ari diren transgenikoak. Hauek ere genetikoki manipulaturako landareak dira. Artoa, tomatea eta soja transgenikoak enpresa handiek sortutako barietateak dira. Enpresa multinazional hauek landare hazien jabegoa dute eta nekazariari saltzen dizkiete. Gaur egun landare transgenikoen produkzioa izugarri igo da, batez ere, Estatu Batuetan. Zein dira honen ondorioak?

Ez da ezaguna transgenikoen benetako eragina kontsumitzaileen osasunean. Aler-

giak sortzen dituztela jakina izan arren, komertzio eta dendetan saltzen diren janari asko eta askoren osagaiak transgenikoak dira, soja kasu. Zoritxarrez produktu hauen etiketan ez da horren aipamenik egiten.

Transgenikoen erabilera masiboak monokultiboa dakar eta honekin ondorio ekologiko kezkanikiak, biodibertsitatearen galera, erosioa, kutsadura kimikoa, etab. sortzen dira.

Nekazaria haziak saltzen dizkion enpresaren menpean gelditzen da, kontratu baten baldintza zorrotzaren pean geldituko da sinatzeko erabakia hartzen duen baserritarra.


Teknologia genetikoa izatez ez da kaltegarria. Izan ere, botika morcloa teknologia horri esker lortzen da. Baina bere aplikazioa diru-irabazi azkarrak helburu duten

esku gutxietan gelditzen direnean, ondorioak oso latzak izan daitezke. Horregatik behar-beharrezkoa da jarraipen estua egitea. Hori administrazioa eta kontsumitzaireen lana da.

Azken baten, arazorik ez izateko modurik onena tokian tokiko produktuak kontsumitzea da. Inguruko baserrietako jakiak dira seguruenak. Modu honetan, gainera, bertoko nekazaritza lagundu eta iraunaraziko dugu. Kanpokoa erosi behar denean informazioa eskatu, ustekabeen transgenikoak jan ez ditzagun

"Teknologia genetikoa diru irabazi azkarrak lortrAko aplikatzen denean, ondorioak larzak izan daitezke"

UDAKO AJ EAK 1





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

74 41 12

Publizitatea:

Ir 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegi, Gemma Agirregomezkorta, ItziarAjuria, IonArrieia, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guille, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi Le6n, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Iban Urizar Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	55-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jauralarazako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



~MM1

fundazioa
fundaciOn

Uffin

1DANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA

EAJ-PNVren anbiguetatea

Tda honetan zehar Miguel Angel Blancoren erahilketaren ondorioz guztiok antzeman ahal izan dugu euskal abertzaleatasunaren aurka Madriletik zuzendutako kanpaina. Mayor Oreja ministroa egitasmo politiko berri baten buru jarri da. Egitasmo honen tesiak indarkeriaren muina abertzaleatasunean oinarrituta dagoela dio, eta hortaz, aurre egin behar zaio abertzale kutsua duen guztiari.

Horregatik PPrengandik bere inguruko komunikabideetara egiten duten zirikatzeari, Euskal Herriko gatazkari Barne Ministeritzak diseinututako polizi neurriak ez diren beste hainbat konponbide eskaintzeagatik jasaten dihardugun etengabeko lin txamendu a man ten tzeko. Polizi neurriok izan ere, ez dute azken 30 urteotan porrota izan duten neurriei ezberdintasunik.

Bestalde, guk ere ez dugu gustuko ETA-KAS ingurutik beraien etsai nagusienak kontsideratuak izatea, hauen amorruren zentro bilakatuz. Baina gaur arte beraien etengabeko xantaiari etsi ez diogun bezalaxe, orain ere ez gaude beste aldetik EAJren anbiguetateaz eta abertzaleatasuna behin-betirako demokraten aldean kokatzeko beharraz hitzegtien dutenen inposaketa akatatzeok prest.

Guk, abertzale eta demokratak, anbiguoak izaten jarraituko dugu Madrilen begien aurrean, anbiguo ez izateko beraiek egiten dutena eta esaten dutena egitera eta esatera behartu nahi baikaituzte; espainolak garela esan behar dugu eta euskal abertzaleatasunari uko egin behar diogu, baina hori ez dugu sekula egingo.

Txosnarien halantzea

1 997ko jaiak pasa direnean, txosnariok honako balorazioa helarazi nahi dizuegu elgoibartarroi:

Batetik, txosna guztiok benetan positibotzat baloratzen ditugu jaiak, bai ekonomikoki baita jendearen erantzunarengatik ere, jendearen partehartzea eskertu nahi dugularik.

Halere, zipaioek Elgoibarko PNVren baimenarekin gure jaiak errebentatzeko izan duten gogo bizia salatu nahi dugu, bost egunetan kontrolak jarriz txosnetatik 100 metrora, kalean jendea intimidatzen eta probokatzen (gazteak geratuz eta karnetak eskatuz), Atutxak atera duen bideobijilantzia famatua erabiltzen, etab. Hori bai, beti ere beraien "pelotera" famatuak eskuartean zituztelarik. Aurtengo jaietan ezer gertatu ez bada gure jendeak intimidazio eta probokazioei kasurik egin ez dielako izan da.

Alkateari ere erantzun nahi diogu, gure txupinazoa gaitzetsi eta "seudotxupinazo"tzat baloratzeagatik. Benetan adierazpen hipokrita da hori, "bere" txupinazoko hitzaldia erderaz egin duen alkate "naziionalista" bati buruz ari baikara.

Bukatzeko, jendeak eman digun babesa eskertu nahi dugu. Hurrengo urtera arte, agur.

Isaac Lolola Zabala

Txosnariak

BARENek ez du bere gain hartzen 1RITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDE

• "Ongarrik antolatuta-ko aire libreko zinemai-diaren barruan, uztaile-ren 12rako iragarrita zeu-den euskarazko "Matilda" eta "Wallace and Gromit" izeneko filmeak bota gabe utzi zituzten egun horretan, gertaera batzuk zirela bitarteko. Nire galdera, irailan pel-likula hori ba ote dugun ikusterik da. Euskarazko

filmeak hain urriak iza-nik, poztuko ginateke ikusteko zoria izango ba-genu".

Ongarri Zine Klubekoen esanetan, "Matilda abuztua-ren 22an eman genuen bai-na "Wallace and Gromit" filmeak ordu eta erdi irauten zenez ez genuen eman. Ai-re libreko zinea amaitu de-nez, ezinezkoa da aurten pe-likula hori ematea".



• Elgoibartar batek honako kexa hau plazaratu nahi du: "Madalako, Merkatu plazako eta Leku-Ederreko komun publikoetan sartu eta egoera negargarrian daudela ikusi nuen joan den egunean. Lotsagarri daude guk, elgoibartarrok, zaintzen ez ditugulako. Gauzak apurtuta, jeringak, lurra eta hormak zipristindurik... Ez dut xehetasun gehiago emango. Ea edukazioz portatzen ikasten dugun".



TXALOAK



• "Aupa Mauxi! Gora one-nak zeratelako eta Txiki egunian in zaban egualdixa-kin jo zenutelako. Mordua

balixo dezue! Gora San Bar-toluak". Neska kuadrila bat. Txiki Eguna 15:30-15:31 sssss.

BAI, f

mm! g⁵



,1010010011111k

Ellerrino Garate

Alkatea

Amaitu dira 1997ko San Bartolome jaiak. Esan ohi den bezala, gutxiago falta da datorren urteko jaietarako. Baina 98ko jaiekin pentsatzen hasi aurretik, pasatu direnei unetxo bat eskaintzea komeni da. Jaiak nola joan diren ikusteko tarte bat hartu dugu eta horretarako **Gillerno Garate alkateari** deitu diogu.

- Gustura geratu al zara aurtengo jaiekin?

Bai. Herritarren partaidetza gainditzea zaila izan-go dela uste dut. Antolakuntza aldetik gauzak on-do irten dira; eguraldiak ere lagundu du eta eIe-mentu eta egoera perturbatzailek ere ez da suer-tatu.

- Zerk izan du estimazio gehien herritarren ar-tean?

- Gauza askok. Batetik, galduta zeuden ohituren berreskuratzeak: San Bartolome eguneko proze-sioa, hain zuzen. Bestetik, Muguruzatarren arkuaren inaugurazioa, sokamuturrak, futbola zezene-kin, herri Idrolak, musika ekitaldiak, etab. aipatu-ko nituzke. Antolakuntza aldetik esan beharra da-go herrian 3 kiosko jarri ditugula aurten eta kale eta plazen garbiketa bizkor eta modu eraginkorre-an egin dela.

- Puntu ilunik ere izango zen akaso.

- Agian Txiki eguneko eguraldi eskasa. Egun har-tan jendeak ez zuen, ez, "ura, ura!" eskatu.

- Denok dauzkagu gogoan iazko jaietako isti-luak. Aurten ez da ezer izan.


- Aurten jaiak Elgoibarko herriarentzat normala dena izan dixa. 96 urtean gertatu zena ez zetorren bat gure herriko errealitatearekin.

L URTEURRENA

1996ko irailaren 11n, 69 urte zituela hil zen

GABINO ELORZA GARATEren oroimenez

URRENEKO MEZA izango da Parroktan, irailaren 13an, arratsalcleko 7etan. joaten zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



114Kkhist4 eultitzeko litetea itahttit4

Oporrak amaitu zaizkigu, frailaren lean gehienek lanari ekin zioten. Eta ikasturte berriari ere eman zaio hasiera. Askok egutegiari lehen errepassoa eman di, ote ea Gabonak bitartean jaiegun edo zubirik ba ote dagoen ikusteko. Egunerokotasunera bueltatu aurretik, elgoibartarrek abuztuan izan dituzten abenturen berri jaso nahi izan dugu. Hiru bidaia desberdinei buruzko gora-beherak irakurri ahal izango dituzue datozen lerroetan: Andeak, Cabo Norte eta Guatemala.

4“ateos4t4

let_ orleta Arozenak betidanik izan du j/Ertamerika ezagutzeko ilusioa. Askapenaren bidez laguntza eskaintzeko aukera ere bazuela jakin zuenean, zailtzarik gabe animatu zen, "Guatemalan iazko abenduan firmatu zeben pakia 36 urte gerran egon eta gero. Interesantia iruditxu jatan eta horregatik erabaki naban hara jutia".

Dorleta eta bere taldekideen Iana, aldea txikieta joan eta indigenen testigantza jasotzea zen, "basuan ezkuta dauden kanposantuetara ixo eta argazkixak etaritzen genitxun eta gero indigeneri testimornua hartzen genien". Pakea sinatu den arren, bertako

herritarrek ez dute 36 urte hauetan ezer gertatu izan ez balitz bezala hutsetik hasi nahi, "hiIdako eta desagertu mordo bat daude eta gauzak pasau dian bezela gogoratzia nahi dabe".

Dorleta Quichen izeneko lurralde-

114 Ckle411 titoutho
teltilmsteak tittais
hodetaie ilthiletteR otems"

an egon da, Nebag herrian. "Guatemalan 23 hizkuntza daude eta etnia baikoitzak hizkuntza bat hitzegiten dau. Gu egon ginan zonan Ixil etnia bizi zan eta batzuk erderaz badakixen arren, beti juten ginan itzultzaile batekin". Goizeko 7etan hasten zen eguna taldearentzat, "batzutan herrixan geratzen ginan. Karta guztiak Nebag-era ailegatzten dia. Jendiak lehendakarixari idazten dio galdu daban guztia esaten eta laguntza eskatzen. Guk kartak irakurtzen genitxun eta han ipintzen zaban datuak apuntatzen: zer galdu zeben, zenbat hildakoa egon zian euren famili-xan, zela hil zian... Poliki-poliki, Guatemalako egoerian berri jasotzen da hola". Behin Rigoberta Menchu Ba-

kearen Nobel saridunaren eskutitza jaso zuten.

Esperientzia positiboa izan da Dorletarentzat, "gerran masakre haundixak ein izan dia, familia osuak moztu... Gauza asko pasau

ditxue baina, hala ere, atentziva deitxu ditx zelako umoria daken. Pasada bat da". Jendearengandik jaso duten harre-ra izan da Dorletak ekarri duen oroitzapenik onena, "ez dabe ulertzen zela juten geran haraino eurei entzun eta ia-guntzera. Baina asko eskertzen dabe". Euskal Herriari buruz ere hitzegin zien, hemengo ohituren berri eman, abestiak kantatu.... "Egun batian `kalian gora, kalia behera' abesten egon ginan eta jaiki eta makurtu eitzen ginan. Harrixuta begiratzen ziguten". Motza egin zaio Dorletari Guatemalan pasatako denbora. Joan aurretik jende guztiak esaten zion lehenengo egunetan negar egingo zuela, "baina nik bueltatzerakuan ein naban negar".

Cato hokte:

ostosbumios osuttoila

il sier Zengotita, Josu Etxeberria, Alberto Zelaia, Iñaki Etxabe, Mikel Arregi eta Pablo Barrenetxea munduaren muturrean izan ziren abuztuan: Cabo Nortean. 21 egunetan 2.460 kilometro egin zituzten bizikletaz eta aurrez uste baino askoz hobeto atera zitzaien dena, "perfekto". Uztailearen 31n Bilbon hegazkina hartu eta Bruselas-era joan ziren. Handik Estokolmora. Lehen gaua Estokolmoko aireportuan pasa zuten, "kuriosua izan zan. Bilbora ailegau ginanian bizikletekin segitxuan hasi zian aireportuko Iangiliak begira eta moskeuakin. Heldu Estokolomora eta han tipo bat bizikletak zaintzen". Eguneke 120 kilometroko etapak egiten zituzten, "goizeko 6:30etan jaiki, gosaldue eta martxan. Pare bat ordu ibili eta gero paradatxo bat eitzen genduan zeozer jateko. Sies-ta txiki bat eta berriz martxan".

Oso gustura geratu dira izan duten harrerarekin, "behin neska bat etorri



Ezkerrean Dorleta, Guatemalako haur bat altzoan hartuta



Cabo Nortera iritsi arte 2460 krn, egin **zituzten bizikletaz**.

"Iltueto 126 eqi14 eittatew tiatat ttelte biziktetat eatto lioneka 4kten

jakun ia pizza bat jan nahi gendun detzen. Guk, harrixuta ia pagau ein bihar gendun galdetu genion eta berak ezetz, debalde ematen zigutela. Handik ordu erdira berriz etorri zan pizza batekin. Eskerrak ematera jun ginanian, pelukerixa batekuak ziala ikusi genduan. Itxuria pizza haura gureztat eskatu zeben. Detailazo bat izan zan euren partetik". Gau gehienak kanpinetan egoten diren egurrezko txaboletan pasa zituzten, "oso merke ateratzen zan, 1.000 pezeta pertsonako. Gainera, txabolak 4 pertsonentzat bakarrik izan arren, seiroi sartzen lagatzen ziguten eta koltxoia ere ekartzen zizkiguten". Suezia eta Noruega ezagutu dituzte batez ere, "oso paisaje politxa da. Sueziatik ixa gehixen baso artetik jun ginan eta azkenian nahiko agobiantia zan. Noruegan sartzerakuan dana aldatu zan, itsasua...".

Tiroiak, tendinitisak eta bestelako lesio txikiak izan dituzte baina bat ere garrantzirik gabekoak. Cabo Nortera iritsi zirenean nahiko desilusio izan zuten, "batetik, dana da oso turistikua. Eta gu sasoi txarrian jun ginan, justu negua hasten darian eta dana lainotuta zauan. Ez zan ezer ikusten. Egualdi onakin politxa izango da, batez ere eguzkixa sartu gabe zela urtetzen dan ikustia. Hori bai, Lofoten irla zoragarria da". Horrenbeste kilometro bizikletan egitea esperientzia polita izan da, "oso ondo ibili gera, problemarik

gabe. Modu honetako bidaiak ein izan daben jendiakin jun naiz eta hori asko igartzen da. Opor osuak aprobetxatu ditzugu, a tope denbora guztian".

leistitaleoak et4 thei2t2iiso-4

4A_i endiak egiteko helburarekin Peru-Prantantz abiatu zen talde handi bat: Sebas Etxabe, Ifiaki Ulazia, Jon Ulazia, Mertxe Castro eta Ales Sota elgoibartarrak eta bi eibartar, Asier eta Alberto. Guztien ilusioa zen Andeetara joan eta 5.000 m. tik gorako mendiak igotzea. Eta ilusio hura errealitatea egiteko asmoarekin atera ziren Elgoibartik. Perura iritsi, giak kontratatu eta aklimatazioarekin hasi ziren. Sebasek kontatu digunez, "poliki-poliki hasi bihar zera, ze altura haundixan burukominak eta botakak hasten dia". Aklimatazio fase horretan Urus (5.495 m.) eta Ishinka (5.530 m.) mendiak igo zituzten eta ondoren ekin zioten Tocllaraju-ren gailurra lortzeari (6.034 m.), aurrikusita zuten lehen mendi fuertea. Tocllaraju hitzak "izotzezko tranpa" esan nahi du, "nahiko teknikua da eta azkeneko puntia eskalau ein bihar da".

Halere, arazoak aurretik hasi ziren, "ura potabilizatzeke pastilak bota eta

1414hess emlion bettemko 44\$4hi4 iz411 zuteo"

irekin arren, askok berakua euki zeben". Ondorioz, Tocllaraju mendia Sebasek eta bi eibartarrek bakarrik egin zuten. Menditik jaitsi, atsedena hartu eta Sebasek eta eibartarrek

Huascaran (6.768 m.) mendiaren gailurra lortu zuten. Bien bitartean, behe-rakoa eta bestelako arazoek eraginda mendi gogorak igotzeko ahulegi geratu zirenek trekking bat egin zuten hiru egunetan zehar eta Pisco (5.800) mendira igotzea lortu zuten. Talde honek aukera izan zuen Peruko hainbat herriska txiki ikusi eta jendea ezagutzeko. Guztiak berriz elkartu zirenean, bost egun geratzen zitzaizkien Elgoibarrera bueltatu aurretik. Denbora gutxi zen beste mendirik igotzeko eta turismo piskat egiteko aprobetxatzea erabaki zuten. Inken kultura baino lehenagoko aztarnak bisitatu zituzten, baita misio bat ere. Gainera, ezkontza batera gonbidatu zituzten, "italiano bat eta peruana bat ezkontzen zian eta herri guztixa zauan gonbidautu. Gu gau ginanian ia zeozer bazkaldu gendun galdetu ziguten eta ezetz esaterakuan, eurekin geratzeko esan. Arroza eta okelia jan gendun, primerakua zauan!".

Peruraino mendia egiteko asmoz joan eta beherakoaren ondorioz ia batera egin gabe bueltatzeak "amorrutua handia" ematen du, baina, halere, primeran pasatu dute.



Talde elgoibartarra Perun, kamioi batera igota.

Nola igaro dituzu oporrak?



PURI LINARES

30 urte, etxekoandrea

Lasai, herria zaintzen. Ta urtero geratzen gara hemen eta egia esan gustura egoten da. Hori bai, egunero kanpora ateratzen ginen, egun pasa.



ANGEL SANCHEZ

41 urte, pintorea

Opor oso politak igaro ditugu. Saloun 15 egun egin ditugu eta beste 15 Errioxan. Lasai ibili eta atsedena hartu, lanerako indarrak beneratzeko.



M. LUISA IGARTUA

52 urte, langabetua

Oso ondo, Benicasim-en. Hondartzara jun, kobazulok ikusi, eskursivak ein... Musika kontzertua zauan eta 17.000 gazte etorri zian. Gero, jaixetarako, buelta.



SONIA RODRIGUEZ

19 urte, ikaslea

Oso ondo, Salamancara jun naiz familixiak. Urtero juten naiz eta hango lagunekin ibili naiz. Halere, ikasi beharra izan dut iraileko azterketetarako.



ZUHAITZ ALDAZABAL

13 urte, ikaslea


Ondo, Murcian egon naiz, hondartza zakan herri txiki baten. Lehengusinakin ibili naiz joiasian, egun guztian hondartzan, gauez ere kalera urten... Motza ein jata.



LUIS GOMEZ

31 urte, dendaria

Galizia eta Islan, Santanderrren, pasa ditut II egun. Duela 4 urte egon ginen eta asko gustatu zitzaigun. Lasai-lasai, ondo baino hobeto egon gara.



K.E.Y. *ingies* akademia

- Maila guztiak (8 urtetik aurrera)
- KET, PET, First Certificate, Advanced (Cambridge Azterketarako prestaketa)
- Talde homogeenak
- Ikus-entzutekoak
- Plaza mugatuak

MATRIKULA EPEA ZABALIK GOIZEZ

9:00etatik 11:30era
telefonoz deituz gero


ARRATSALDEZ
17:00etatik 19:00etara
akademian

Cambridge Unibertsitateko
Azterketetarako Batzordeko
kidea ES438

Berriardo E. zeriirro, 5-3. esk. Tel: 74 30 44

ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA

IRAILEA 1N IKASTAROAK IVIARTXA_N



IGERIKETA
> IGERIKETA ESKOLA
KARATEA
SALSA
MUSKULAZIOA
TENISA
BUZEOA
D AEROBIC-A
D AQUAROBIC-A
D MANTENU GIMNASIA
D PATINAIA
■ KIROL ANITZA
JUBILATUENTZAT GIMNASIA



IGERIKETA ESTILOAK
> MASAJE IKASTAROAK
YOGA
> AEROBIC TXIKIENTZAT
1 GIMNASIA TERAPEUTIKOA URETAN

Izeri-ernatea **OLAIZAGA KIROLDEGIAN** Tel: 74 44 15

Ongi etorri euskarara

Ongi etorri DEBABEra Udal Euskaltegien
Manymunitatera



1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza
EUSKALDUNTZE ALFABETATZE eta EGA
HIZKUNTZ PERFILAK Administrazioa eta Hezkuntza

Iraupena: Iraila- Ekaina

Eskaintza hereziak
Mintzamen tailerra - Idazmen tailerra - Oinarriko alabetzea
Iraupenas 100 ordu

Ikasle eta langabetuentzat prezio bereziak
Bekatzeko sistemarekin ia dohainik ikas dezakezu euskara
16 urtez gorakoentzat

Ordutegia
ELGOIBAR: Goizez: 09.00-13.00 / Arratsa Idez: 15.00-19.00
MUTRIKU: Goizez: 09.00-12.30 / Arratsaldez: 15.30-19.00
DEBA: Arratsaldez: 16.00-19.00

Matrikulaldia
Irailaren 2tik 26ra arte

"DEBABA"
UDAL EUSKALTEGIEN
MANKOMUNITATEA

Nafarroa Enparantza, 2 - ELGOIBAR
Tel.: 74 27 31

Txurruka Enparantza, 1 - MUTRIKU
Tel.: 60 30 94

Iifar-kalea, 12 beheka - DEBA
Tel.: 19 22 36

UDAL
EUSKALTEGIAK

• Lodosara txangoa Jubilatu Etxearekin

Elgoibarko Jubilatu Etxeak Etxioara txangoa antolatatu du hilaren 26rako, Lodosara herri ezagunera hain zuzen. Egunean zehar ekintza ezberdinak egingo dituzte: piper kontserba enpresa batera bisita, parrokia ikusi, pikilloko piperaren momutnentua bisitatu, herriko plaza ikusi eta erguerdiko 2ak aldera bazkaltzera abiatuko dira Hostal Venecia-ra. Bazkaloetan dantzaldia eta ezustea izango dira. Izena emateko Jubilatu Etxetik pasa.

• Helduentzako Hezkuntza Zentroko matrikula epea zabalik

Eibarko Helduentzako Hezkuntza Zentroak matrikula epea zabalik dauka irail osoan zehar. Aurten lehen aldiz Lanbide Heziketarako azterketa prestatzeko kurtsoa osatuko da. Matrikula egiteko zentrotik bertatik pasatu. (Isasi 39, Eibar) goizeko 10etatik ordu batera eta arratsaldeko 5etatik 8etara bitartean. Matrikula eta kurtsoa dohainikoak dira.

• Haurrentzako buztin ikastaroa

Astelehenean eman zitzaien hasiera Lurki Zeramika Taldeak antolatutako haurrentzako buztin, ikastaroari. Buztina lantzea gustuko duten ume guztiek urriaren, lera arte jasoko dituzte klaseak. Norbaitek izena eman nahi badu **Aita Agirre** Plazako **lokaiera** jo dezake astelehenerdik ostegunera, arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean.

Astelehenean hasiko da meningitisaren eta gripearen aurkako txerto kanpaina

Atorren astelehenean, hilak 15, meningitisa eta gripearen aurkako txerto edo bakunazioari ekingo zaio Euskal Autonomi Erkidegoan. Elgoibarren ere hala izango da. Herriko Osasun Zentrotik adierazi dugunez, kanpaina hilaren 15ean hasi eta urriaren 30ean amaituko da.


Meningitisa infekzio-gaixotasuna da. Musu bat emanez, ez-tula eginez edo mahaiko tresna berak erabiliz kutsa daiteke. Hiru meningitis mota daude: A, B eta C. Taz "C" motako meningitisak jotakoen kopurua igo egin zen aurreko urteekin konparatuz gero. Gertaera honen aurrean eta meningitis mota horren aurkako txertoa badagoela aintzat harturik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak prebentzio neurri bezala, 18 hilabete eta 20 urte bitarteko pertsona guztiei txertoa jartzea erabaki du. Hila-

ren 15etik urriaren 30era bitartean eskolan dabiltzan neska-mutil guztiek, bakoitzak bere zentroan jasoko du txertoa. Praktikanteak eurakjoango dira ikastetxeetara. 18 hilabete eta 3 urte bitarteko haurrek eta eskolatu gabeko gainerako biztanleek, berriz, Osasun Zentrora jo beharko dute txertoa hartzeko. Txertoa jasotzera joan aurretik, txanda hartu be-

harko da 74 33 54 zenbakira deituta. Gogoratu goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak arte dei daitekeela txanda hartzeko.

Gripearen aurkako kanpaina

Gripearen aurkako bakunazioa urtero egiten da sasoi honetan. 65 urteko gorako pertsonen eta gaixotasun sendaezinak dituztenei emango zaio txertoa. Bakuna hartzeko ez da txandarik hartu behar. Osasun Zentrora joan, goizez, eta txertoa emateko eskatu.



Urruzuno auzoko bidean asfaltoa bota dute

Udalak eta DEBEMEN Elkarteak Elgoibarko nekazal inguruetan egiten diharduten berrikuntzen barruan dago Urruzunoko bidea berritzea. Izan ere, joan den ostegunean hasi ziren asfaltatze lanak eta asteartean amaitu zituzten. Guztira 1.750 metro asfaltatu dira. Ondo zeuden zatiak bere horretan laga dira eta txarto zeudenak berritu. Urruzuno auzorako sarrera ere egokitu egin da. Trenbideetik eskonbrerara bitarteko bidea, berriz, konpondu gabe geratu da, bide berria egiteko proiektua baitago.

DEBEMENek Deba Beheko nekazal inguruak berritzeko duen diru partidaren barruan, Elgoibarri

22 milioi egokitu zaizkio. Obren kostuaren %45a da gutxi gora-behera eta gainerakoa Udalak ordaintzen du. Aurten 44 milioi inguru gastatuko dira ur homiketa eta bide berriak egiteko. Errepideei dagokienean, 6 kllometro berrituko dira.

San Pedroko bidean 1.600 m. asfaltatu dira eta egiteko dago Sallobente auzoan Berdun baseritik Armaixara bitarteko errepidea, 3.200 m. Azken honetan hil honen amaieran edo datorren hilaren hasieran ekingo zaie asfaltatze lanei.



422.000 pta. jaso dira Salbatorearen irudia herritzeko

Salbatorearen Irudiaren Adiskideen Batzordeak ohar bat kaleratu du errestituzio lanak ordaintzeko bildu den diruaren berri eman eta laguntza eskaini duten guztiei eskerrak luzatzeko. Guztira 422.025 pta. izan dira bildu direnak. Igeltsaritza eta errestituzio lanetan 233.104 pta. gastatu dira. Gastatu ez den dirua, 188.921 pta., geroa sor daitezkeen premiei aurre egiteko izango da edo beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko.



• Ingurugiroari buruzko ipuin lehiaketa

Deba Beheko Mankomunitateak ingurugiroari buruzko ipuin lehiaketa antolatu du Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako haur eta DBHko lehen mailako ikasleentzat. Ipuinen protagonista "Konti" izan beharko da. Lanak bi orrikoak izango dira gehienez eta ikastetxean bertan aurkeztuko dira abenduaren 5a baino lehen. Irabazleak hiru lagunentzako Port Aventura bidaia jasoko du sari modura. Bigarren eta hirugarren sailkatuentzako saria naountain bike bana izango da. Laugarren, bosgarren eta seigarren geratzen diren lanen egileei motxila bana oparituko zaie.

• Hasi dira klaseak Herriko Institutuan

Gaur, hilak 12, hasi da 97-98 ikasturtea Heniko Institutuan. DBHko ikasleak izan dira klasean hasi diren lehenak. 16 urtetik gorakoek eta plan zaharrekoek (2. BBB eta REM) hilaren 26an, ostirala, izango dute aurkezpen eguna. Ikasle hauei garaiz adieraziko zaie zein ordutan izango den aurkezpena. Ikastetxeko zuzendaritzak adierazi digunez, aurten Arreiturreko zentroan egongo da jangela.

Elgoibarko kontsumitzaileei zuzenduriko aldizkaria kalean

Elgoibarko Kontsumo Bulegoak Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkartearekin batera "Kontsumo" izeneko aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu du. Herritarrei zuzenduriko argitalpena da eta lehen zenbakia etxebizitzari buruzko monografiakoa da. Aldizkariak 6 orri ditu, erdiak euskaraz eta beste erdiak gaztelaniaz. Datozen zenbakietan herritarrek bulegoan kontsumitzaileentzat dituzten gai ezberdinak jorratuko dira. Era berean, jendeak Kontsumo Bulegora jo dezake edozein zalantza, dera edo sujerentzia izanez gero. Bertan jasotzen diren eskaerak aldizkarian argitaratzeko asmoa du Kontsumo Bulegoak. Elgoibarko Kontsumo Bulegoaz gain, proiektuan Oñati, Eibar, Ordizia eta Beasaingo Bulegoek ere hartu dute parte.



Ikasturte hasiera Gestio Eskolan

Astearte goizean, hilak 9, eman zitzaion hasiera Gestio Eskolako 1997-98 ikasturteari. Arratsaldeko 6etan ikasturtearen hasierako ekitaldi ofiziala egin zen Erreminta Makinaren Institutuko areto nagusian. Bertan 1996-97 ikasturteko txostena auzeratu zuten eta besteak beste, eskolako laguntzaileak diren Jaeinto Irazola eta Mikel Ugalde jaunek hartu zuten parte. Ekitaldiari, Iñaki Arriola, eskolako Patronatuko presidentek eman zion amaiera. Aurten 41 ikasle berrik hasi dute ikasturtea Gestio Eskolan. Guztira 158 ikasle ditu zentro honek.




Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3. 17 74 12 56 - (muglcor.) 909 53 23 83



54511⁴

ileapaintlegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 fel. 74 11 89

AEK eta Udala ados diru-kontuetan

AEK-ko ikasie, langabetu eta jubilatuen matrikula erdia ordainduko du Udalak

Urte asko daramatza AEK-k euskaltegi horretan ikasi nahi duten pertsonentzat dirulaguntza eskatzen, Udal Euskaltegiako ikasleek jasotzen duten bera. Baina, homologatu gabeko euskaltegi pribatua zela-eta, ezetza jaso izan du orain arte, nahiz eta lokala Udalak uzten dion. Aurten gauzak aldatu egin dira. izan ere, AEK-ko irakasleak homologatu berri dituzte eta Udalaren eta AEKretz artean zenbait bilera eta elkarrizketa egin ondoren, akordio batera iristea lortu dute.

Jubilatuak ere aukera berdina

Eigoibarren bi aukera daude euskara ikasteko: AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia. Orain arte, Udal Euskaltegian matrikulatzen zirenek

dirulaguntza jasotzen zuten Udaleko Euskara Zerbitzutik eta AEK-n ikasi nahi zutenek laguntza bera izatea eskatzen zuen aipatu euskaltegiak. Sarreran esan bezala, gaur arte homologazio eza oztopoa zen dirulaguntza jasotzeko baina aurrerantzean, AEK euskaltegian matrikulatu nahi duten ikasle, langabetu eta jubilatuek ere jasoko dute matrikularen erdia ordaintzeko dirulaguntza Udalaren eskutik. Jubilatuek lehen aldiz izango dute aukera **hau, bai** AEKn, baita Udal Euskaltegian ere.

Matrikulazio epea hasi da dagoneko. Esan bezala, Elgoibarko bi euskaltegietan ikasle, langabetu eta jubilatuek prezioaren erdia ordainduko dute matrikula egiterakoan.



AEKren lokala Plaza Txikian.

ATXUTXIAMAIIKA BEGIRALE TALDEAK antolatuta: BEGIRALE IKASTAROA ELGOIBARREN

Datak

Hasiera: irailaren 27an

Bukaera: maiatzaren 16an

Larunbatetan

Matrikula

izena **emateko epea:** irailaren 151/i971

30.000 pta. Nastaroaren zati handi 115/171

(lanorduen bidez finantzatu ahal izango da)



Elgoibarko UdaSa



BEGIRALE
TALDEA

Eusko iaurlaritzza

MUGATUAK

Ikastaroa Donostiako URTXINTXA ESKOLAK emango du eta **titulua Eusko Jaurfaritzak homologatutakoa** izango da,

informazio gehiago nahi izanez gero, deitu **74 16 26** telefonora Jesus) edo zatoz **ELGOIBARKO IZARFiAko** lokaletara (Ubitarte, 4 behea) , goizez.

Baserritarren egunari errepasoa

Etorri bezala joan zen San Bartolome jaietako Baserritarren eguna. Egun horrek xanna berezia izaten du eta aurten bezala eguraldiak laguntzen hadu, ehundaka lagun ikus daitezke Elgoibarko kaleetan zehar. Goizean goiz hasten dira baserritarrak hurreratzen eta I2ak aldera Pltza Handia gainezka egoten da, bai baserritarrez baita kaletarrez ere; guztiak sagardo dastaketan parte hartzeko asinoz. Sabela txorixoz betez eta eztarria sagardoaren zaporeaz bustiz. Ganadua gustatzen zaionarentzat aukera ezin Izobea izaten da Plaza Txikira hurreratuta ganadu lehiaketan parte hartzen duten buruak ikusi ahal izateko. Belarriak astintzen ari-tzen dira bertsolari eta trikitilariak egun osoan zehar. Arratsaldean, berriz, herri kirolak izanten dira. Aurtengo lasto altxatze txapelketan, Jose Mari Egaña "Mintxeta" elgoibartarra nagusitu zen.

Guazak martxa onean joan ziren egun osoan zehar, guk dakigunez behintzat. Hortaz, datorrena noiz iritsiko zain geratu besterik ez dugu. Abuztua ailegatu aurretik, gainera, beste zita polita izaten dugu Gabonetako Gabon Zahar ferian. Ez da gutxi!

ESKUALDEKO ABELGORRI LEHIAKEDI

PIRENAIKA ARRAZA

1. urte eta erdira bitartekoak (30.000 pta.)

Ramon Larrañaga
Aldapa baserria (Elgoibar)

2. Bi urte eta erditik bost urterera bitartekoak (30.000 pta.)

Juan Galdos
Migelena baserria (Oñati)
3. urte eta erditik gorakoak (30.000 pta.)

Juan Maiora Zezeaga
Iñarre baserria (Bergara)
QIEtekin handiena 133.000 pta.)

Jose Aranzabal
Etxeberri baserria (Elgeta)
4. urte eta erditik gorakoak (30.000 pta.)
Juan Maiora
re baserria (Bergant)

FRISOI ARRAZA

1. urte eta erdira hitartekoa (30.000 pta.)


Jose Martija
Zubeltzu Zahar baserria (Itziar)

2. Bi urtetik hiru urterera bitartekoak (30.000 pta.)

Jose Martija
3. Hiru urtetik bost urterera bitartekoak (30.000 pta.)

Jose N1aria Ostolaza
4. Bost urtetik gorakoak (30.000 pta.)

Jose Martija
011oki baserria (Itziar)
5. Etekin handiena (33.000 pta.)
Jose Martija
F.DAberekingu saria
Jose M. Ostolaza



X111. SAGARDO LEHIAKETA 111

Astiazaran sagardoteg:

Antent Zub

3.- Sarasola (

INGUDE ALTHATZEA

Andres E

LASTO ALTKATZEA

1-

GURDI ERABILTZEA

CIPUZKOAKO TRONTZALARI THAPELKETA




Cicitz.On cgoaga- eMando ugartegt

Joxe Gabirondo-Andres Etxeberria

Iñigo Izeta- Juan Mari Izeta

Jose Mari Egaña-Florentino Larratiaga

Horrelako egunetan gauzarik onena laburpena edo errepasoa argazkien bidez egitea izaten da. Egia da urtero ia gauza berdinak errepikatzen direla baina momentu bakoitzak ukitu berezia izaten du eta horiek isladatzen saiatuko gara. Sargardo lehiaketa eta dastaketa, bertsolariak, trikitilariak, ganadua Plaza Txikian, makinaria, baserritarrak han eta hemen, bazkari herrikoia... Juergarako eta giro onean egun eder bat pasatzeko gogoia ikus zitekeen edonoren aurpegian. Ardoaren gozoak bizitutako begi eta masail gorriekin azaldu zen arratsalde partean jendea Foruen Enparantzara. Bertan, herrien arteko herri kirol lehiaketa egon zen: lokots biltzea, 50 kiloko txingak, 80 kiloko pisua zuen zakua eramatea, orga jokoa, lasto altxatzea eta trontza izan ziren ikusgai. Guztietan norgehiagoka estua egon zen eta horrek arreta berezia sortu zuen jendearengan. Batzuen eta besteen aldekoek gogor txalotu zituzten partehartzaileak eta antaitzean irabazleak denak izan zirela esan daiteke, nahikoa meritu baita era horretako kirolean aritzea.



CRISTALERIA EL-GOIBARRESA C. B.

4~1x.valt.

Dt4.4 ko4s,

41,44,04444.



Urasandi, 12 behea
Tel-Faxa: 74 04 89



OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua


III 7(943) 20 35 15 e 1' ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) e 20600 EIBAR



Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR



JAKIN
akademia



- Informatika
- Klase partikularrak
- Kontu eta merkatal gestioa

**TALDE MURRIZTUAK
KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ**

**Errosario, 25- 1 esk.
Tel: 74 08 95
ELGOIBAR**

**Santalaitz, 4
Tel: 76 00 68
BERGARA**

Hizkuntza Eskola Ofiziala

MATRIKULA OFIZIALA 1997-98

MATRIKULA SOBREAK JASOTZEKO
ETA PLAZA HARTZEKO EGUNA



1. TXANDA

96-97 ikasturtean Eskolako ikasle ofizialak izan direnak. Klasera huts egi-teagatik ofizialtasuna galdu dutenak txanda honetatik kanpo geratzen dira.

arratsaldez: ingeles, frantses eta euskarako 4. maila.

goizez: ingeleseko 3. maila.

arratsaldez: euskara eta frantseseko 2. eta 3. mailak.

Ea', 1«h goizez: ingeleseko I. eta 2. mailak.

li(?)§).11eDf_11 2, 9 arratsaldez: ingeles, frantses eta euskarako 5. maila.

96-97 ikasturtean Eskolako Ikasle libreak izan direnak, ofizialtasuna galdu dutenak eta beste H.E.O.etatik datozenak.

2ffingffill 222, goizez: ingeles, frantses eta euskarako 4. maila.

2,C3, arratsaldez: ingeles, frantses eta euskarako 3. maila.

ITEMEiEs ET, goizez: ingeles, frantses eta euskarako i. eta 2. mailak.

`IPEAs2, 2.2) arratsaldez: ingeles, frantses eta euskarako 5. maila.

VXAM£

Ikasle berriak H.E.Oetan inoiz matrikulatu izan ez direnak (tokirlik balego).

Uennllffil. goizez: ingeleseko 2. maila (28 urtetik gorakoak)

arratsaldez: ingeleseko 2. maila (16 urtetik gorakoak).

Sck)51k1h 55, goizez: frantses eta euskarako 2. maila.

Ingeleseko 2. maila (26 eta 14)

OHARRAK

Matrikula egiteko beharrezkoa da NAN-a edo eskatu denaren zlurtagl-rla aurkeztea

Ikasle ofizial eta libreek H.E.O.eko agiria aurkeztu beharko dute.

Matrikula, sobrean jartzen duen egun eta orduan egin behar da.

Maila batean matrikula egin ahal izateko, aurreko maila gainditua izan behar da.

96-97 ikasturtean Zikloko azterketa egin dutenek bakarrik egin ahal izango dute matrikula hizkuntza bereko maila desberdinetan, azterketa horretarako notak ikaslearen maila adieraziko duelarik.

Bulego ordutegi 9:30 k 3: 0 .ta 14:3 - 8: 0. stiralak. 9:30-13:00

Bihar, irailak 13, amaitzen da Edu Arrillaga argazkilariaren erakusketa. 31 urte dituen gazte elgoibartar honek "Herri baten argia" izenez bataiatu du bere azken argazki bilduma. Horien bidez, euskal baserriarren bizitza isladatu nahi izan du eta, era batera edo bestera, jendeari baserriko bizitza erakutsiz, omenaldi moduko bat egin nahi izan die guztiei. Duela lau urte ekin zion lan honi eta oraindik hasi baino ez dela egin aitortu digu. Printzipioz, lehen erakusketa hau bide onetik joan da eta irailaren 9tik Bilbon dago ikusgai.

"Baserritarra izatea harro egotekoa da"

— **Nondik sortu zen ideia?**

- Orain dela 4 urte Koldo Izagirre eta Antxon Agirre Sorondo baserrien inguruan ari ziren lanean eta euren kolaboratzeko eskatu zidaten, argazkiak ateraz. Niri ordura arte ez zitzaidan hurutik pasatu ere egin baserria gai bezala erabiltzea. Askotan inguruan daukagun guztia arruntegia egiten zaitugu eta kanpora jotzen dugu gauza eta motibazio berrien bila, gertu daukaguna benetan ikusgarria dela konturatzen garen arte. Gaiarekin poliki-poliki hasi nintzen eta gaur arte. Txundituta nauka.

— **Goizeko hiruretan ere deitu izan dizute baserrietatik.**

- Bai. Behi batek txahala izan behar zuenean zuzenean deitzen zidaten eta han izaten nintzen, jaiotzaren lekuko nire kamara eskuan

hartuta. Halere, gehienetan ez didate abisatzen eta normala da, eurek euren bizimodua dute eta ezin diet eskatu nitaz arduratzeko. Ahal dudan guztietan joaten naiz eta parean tokatzen zaidana ateratzen dut. Batzuetan beste batzuetan baino zorte gehiago egoten da.

— **Zer moduz hartu dute baserriarrek zure lana?**

- Oso ondo. Nik hasieratik esan nien zein zen nire asmoa. Hori bai, batzuek sorpresa handia hartu dute erakusketako protagonista bakarrak eurak zirela uste zutelako eta ez pare bat argazkitan bakanik agertuko zirela.

— **Zer moduz hartu du jendeak erakusketa?**

- Madrilen ere erakutsi ditut argazkiak eta erreakzioa oso desberdina da. Madrilen mundu ezezagun bat ikusten dute argazkietan,

haientzat argazki horietan ikusten dena pasada bat da. Hemen, berriz, ezaguna den mundu baten inguruan irudi harrigarriak aurkitzen dituzte, sorpresaz hartzen dituzte argazkiak.

— **Eguneroko bizitza, lana, jazkera..**

- Hori da. Gaur egun oraindik baserrietan mantentzen den euskal kultura eskuratu nahi izan dut gero-ra, bizitzeko modu hori desagertzen denean, gogora dezagun.

— **Zer geratzen zaizu egiteko?**

- Baserriarren gaiarekin hasi baino ez naiz egin. Intimitatean sartu nahi dut: Gabon gaua, bazkariak eta aforiak... Zoragarria litzateke euren artean sartu eta hat gehiago izatea. Ez konturatzeari ni eta nire kamara handaudela. Zaila da, baina lortu nahi dut.

— **Zer aurkitu duzu baserriarren artean?**

- Giza balore handia, lan egiteko gogo handia duen jendea, irekia, atsegina, edukatuak, letxe txarriarekin baina denbora guztian zure gainean daudenak. Baserritarra izatea harro egotekoa da eta jendeak baloratu egin behar du egiten duten lana.

- **Proiektu gehiago ba al dituzu?**

- Buruan mordo bat. Egunen batean, sokamuturrari buruzko erakusketa egin nahi nuke. Bost urte daramatzat San Bartolome jaietako sokamuturrean ateratzen eta mundu oso bat dago bertan: haurrak, erosketak egitera ateratzen diren etxeoandreak, zaharrak elizako arkupeetan, mojak, gazteak...

EESTEK ESANA

"Eduk argazkiak ateratzeko mugitzen den giro guztietan naturaltasun osoz integratzeko gaitasuna du
KOLDO LIZARRALDE (Iaguna)



OC
lie

EDU

UZTAILEAN

•••• JAIOTAKOAK ••••

- Paula Alvarez de Arcaya (Uztailak 4)
- Ander Barruetabetia (Uztailak 6)
- Nerea Babarro Blaseo (Uztailak 7)
- Asier Rodriguez Blanco (Uztailak 9)
- Mikel Vallejo Caballero (Uztailak 16)
- Andrea Arregi Rodriguez (Uztailak 17)
- Igor Loidi Etxaniz (Uztailak 22)
- Sarai Alvarez Calleja (Uztailak 25)
- S Aitor Urain Martin (Uztailak 27)

•••• EZKONOUTAKOAK ••••

- Santiago Ferna'ndez Quintanar eta Lourdes Ziorraga Azkurte (Uztailak 5)
- Francisco Garcia Raya eta Rita Dolores Segundo Iranzo (Uztailak 25)

•••• HILDAKOAK ••••

- I. M. Cruz Balenzategi, 66 urte (Uztailak 2)
- Maria Agote, 83 urte (Uztailak 5)
- Ceferino Martinez, 69 urte (Uztailak 7)
- Martin San Martin, 91 urte (Uztailak 9)
- Domingo Moreno, 47 urte (Uztailak 11)
- Jose Andres Iriondo, 80 urte (Uztailak 15)
- Casiruiria Arozena, 74 urte (Uztailak 17)
- Sebastian Ansola, 70 urte (Uztailak 17)
- Guillerma Juaristi, 81 urte (Uztailak 17)
- Sebastian Uribe, 90 urte (Uztailak 19)
- M. Carmen Urcelay, 76 urte (Uztailak 19)
- Ignacia Arriaga 89 urte (Uztailak 20)
- Luisa Zubizarreta, 91 urte (Uztailak 24)
- Angel Parada Pe'rez, 69 urte (Uztailak 27)
- Jasone Vallejo Arriaga, 71 urte (Uztailak 28)

ABUZTUAN

•••• JAIOTAKOAK ••••

- Maite Viñe Usatorre (Abuztuak 6)
- Jon GuillO Rodriguez (Abuztuak 14)
- Julen Sanchez Miiller (Abuztuak 28)
- S Gorka Baz Salegi (Abuztuak 31)

•••• EZKONDILITAKOAK ••••

- Miryam Aldazabal Juaristi eta Bixente Alonso Egurrola (Abuztuak 2)
- Jose Nogales Menguiano eta M. Carmen Migales Ordoñez (Abuztuak 2)
- Mariano López Rodriguez eta Montserrat Bruno Checa (Abuztuak 2)

•••• HILDAKOAK • is ••

- Juliana de Pablo, 87 urte (Abuztuak 1)
- Luisa Saez de Ibarra, 80 urte (Abuztuak 3)
- Lorenzo Juaristi, 47 urte (Abuztuak, 5)
- Francisco Olasolo, 89 urte (Abuztuak 9)
- Fernando Arrieta, 37 urte (Abuztuak 17)
- Lorenza Osoro, 87 urte (Abuztuak 22)
- Juana San Martin, 87 urte (Abuztuak 24)

**Avelino
Arrieta
Sarasua
(1897-1979)**




- 1897ko martxoaren 31n jaio zen Arriaga baserrian.
- Arriagatik Irabanetara joan zen familia. 8 anaiarreba ziren, bera gazteena.
- Eskolan ibili eta baserrian lan gutxi eginda, 17 urterekin Gernikara joan zen, I. Mundu Gerratearen amaiera inguruan. Gernikan pistolak egiten aritu zen; geroago eskopetagitazarako baskulero ikasten bere anaia Sebastianekin, berau maisu zelarrik.
- Gizon trebea zen eta berehala oso ezaguna eta preziatua bihurtu zen Elgoibarko eta Eibarko eskopeta munduan. Irabaneta izenez ezaguna zen.
- Lucia Etxanizekin ezkondu zen eta sei seme-alaba eduki zituzten.
- 1940an "Arrieta y Cia" enpresa sortu zuen, gaur egun "Manufacturas Arrieta" izenarekin jarraitzen duena. Betidanik kalitatezko eskopeta berezia landu izan du. Gaur egun enkarguz egiten dute lan, aurrez salduta eta neurria egindako eskopetak.
- Begira zein izan zen Avelino. Alfonso XIII Erregearentzat eskopeta kulata egin zuen, baita ere torero, artista, fama handiko gizonentzat eta klase askotako jendearentzat.
- Artista onenatariko bat izatera heldu zen. Hitz batean esanda, Avelino "mundiala" izan zen eskopeta lanean.
- Gizon apala eta hitzekoa. Familia girokoa eta lagun artea gustuko zuena. Sinesmen handiko gizona.
- Bere zaletasunik handiena ehiza zen, oilagorrek batez ere. Herri kirolak ere gogoko zituen.
- 1979ko urriaren 6an hil zen 82 urte zituela.

Juanito Gorostiza



ESKERTZA

1997ko irailaren 5ean, 76 urte zituela hil zen JOSE ARIZNABARRETA EREÑAREN sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Aste honetako erretratua **Iñaki Gabilondok** laga digu. Ikusten duzuen bezala, Iriakik gustukoak ditu futboleko erretratu zaharrak.


Gaurkoa Lerungo futbol zelaian 1954. urtean ateratakoa da. Iñakik esan bezala, erretratua Urnore Ona eta Anaitasuna ekipoetako beterranoek jokatu zuten egunetako da. Umore Ona taldekoak elgoibartarrak ziren eta astebete lehenago Azkoitian jokatu

zuten Badiola anaien diruz laguntzeko jokatu ziren, bietakoko bat itsutu egin baitzen.

Ikus dezagun zein diren Umore Ona taldea osatzen zuten elgoibartarrak:

Tente, ezkerretik hasita: **Pedro Gabilondo, Jesus Mari Izagirre, Antonio Unzueta, Jesus Egaña, Badiola anaiak, Gerardo Garate (t) eta Jose Juaristi (t).**

Makurtuta: **Luis Mugerza eta bere alaba, Julian Jainaga eta semea, Julian San Martin (t), Antonio Arriola eta Mikel Gorostiza.**



ETXE BERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa Klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 74 1.3 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07

20 jarduera eskaintzen ditu Patronatuak aurtenco denboraldirako

Dagoeneko martxan daude Udal Kirol Patronatuak 97-98ko denboraldirako prestatu dituen ikastaroak. Mintxetan eta Kiroldegian emango diren ikastaroak sekula baino lehenago hasi dira aurten, irailaren 1 ean, hain zuzen. Patronatuak eskaintza guztia biltzen duen gida banatu du etxez etxe.

2

ikaStar0edo urduara7

aurten **Patronatuak**. Hauetatik batzuk lehenago ere ba zeuden eta beste batzuk, berriz, berriak dira. Yoga esaterako, jarduera berria da. Trailaren 1 ean hasi zen eta 1998ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Uretan egiten den gimnasia terapeutikoa 50 urtetik gorakoei zuzendua dago eta hau ere berria da. Aurten lehen aldiz baita ere, emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatu da. Igeriketari dagokionez, hasiera eta hobekuntzako ohiko ikastaroez aparte, estilo ezberdinak lantzeko ikastaro monografikoak antolatu dira. Irailean, azaroan, urtarrilean, martxoan eta maiatzean

emango dira ikastaro monografiko hauek eta astebeteko iraupena izango dute. Ikastaro bakoitzean estilo bat landuko da: krol, bizkarra, tximeleta eta bu-larra.

Patronatuak kalera-tu duen eskaintza honek urte osoko kirol plangintza egiteko aukera ematen du. Denboraldi osoan emango diren ikastaroak igeriketa, yoga, karatea, salsa, muskulazioa, aerobic-a, aquaerobic-a, kirol anitza, jubilatuentzako gimnasia, mantenu gimnasia eta gimnasia terapeutikoa uretan dira. Hauez gain, ikastaro motzagoak emango dira: autodefentsa, patinaia, tenisa, trikitixa (dan-tza), buzeroa, masaia eta sebillanak.

Ikastaroen ordutegien zein prezioen berri zehatzagoa jasotzeko Kiroldegira edo Mintxetara zuzendu edo 74 44 15 eta 74 43 15 zenbakietara deitu.



Igeriketa estilo ezberdineak hobetzeko ikastaro monografikoak antolatu dira.



Adinekoek mantenuko gimnasia eta gimnasia terapeutikoa uretan egiteko aukera izango dute.

KIROL ALBISTEAK

• **Sasidhallowko jubenil taldea sortzeko deialdia**

Elgoibarko mutiI talde bat saskibaloiko jubenil mailako taldea sortzekotan dabil. 1980 eta 81 urteen bitartean jaiotakoen partaidetza bultzatu nahi dute. Aurrendenboraldia bukatzeko denbora arazoekin dabiltzanez lehenbailehen izenak ematea komeni da. Interesatu guztiek telefono hauetara dei dezakete: 74 12 74 (Gorka) eta 74 18 40 (Andoni).

• **Bi futbol taldek jokatuko dute astehuruan etxean**

Asteburuan, herriko bi futbol taldek Mintxetan jokatuko dute ligako partidua. Larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 17:30ean Haundi taldea Santanderko Racing-en aurka arituko da. Bi ordu beranduago, arratsaldeko 19:30ean hain zuzen, Pedrusko taldeko mutilek Gazteak-eko jokalaririk izango dituzte aurrez aurre.



2. AURRIAN

97-98



J. Ramon Zahala
presidentea



Kike Ormaetxea
entrenatzailea
(Eibar)



Ihan Larrañaga
23 urte, atezaina
(Ermua)



Igor Prieto
20 urte, atezaina
(Deba)



Iker Atxabal
21 urte, atzelaria
(Donostia)



Gorka Guarrotxena
20 urte, atzelaria
(Eibar)



Iker Beitia
26 urte, atzelaria
(Eibar)



Jon Argoitia
22 urte, atzelaria
(Ermua)



Xabier Alonso
29 urte, atzelaria
(Elgoibar)



Anart Lema
21 urte, atzelaria
(Ondarroa)



Javier Gurrutxaga
22 urte, atzelaria
(Elgoibar)



Aitor Treviño
24 urte, erdilaria
(Eibar)



Gaizka Lazaroaster
23 urte, erdilaria
(Mendaro)



Migel Diaz
28 urte, erdilaria
(Azkoitia)



Aiert Zinkunegi
20 urte, erdilaria
(Deba)



Unai Aranburu
21 urte, erdilaria
(Ondarroa)



Ander Iruretagoiena
27 urte, erdilaria
(Zarautz)



Koldo Agirregomezkorta
25 urte, erdilaria
(Mutriku)




Eneko Barrenetxea
26 urte, aurrelaria
(Eibar)



Mitxel Badiola
26 urte, aurrelaria
(Zumarraga)



Karlos Madina
26 urte, aurrelaria
(Mutriku)



Joseba Igartua
25 urte, aurrelaria
(Elgoibar)



Mikel Elkoro-Iribe
20 urte, aurrelaria
(Elgoibar)

Hasi da liga. Aurten Haundi taldeak 2. mailan jokatu du. Dakigun bezala, txurigorriek demaseko erronka dute 2. mailan mantendu eta berriro kategoriaz jaitsi nahi ez badute. Aurten plantila berritua dugu. Yerobi, Galtxa eta Txartxa beteroek ez dute gehiago Elgoibarko kamiseta jantziko. Beste batzuk ere falta dira: Leonardo eta Arzamendi elgoibartarrak. Horien partez, sei jokari fitxatu ditu Klub Deportiboak.

Jokatutako hiru partiduetan Haundik ez du paper txarra egin. Lehenengo partidua 0 eta 1 galdu arren Endesa Andorra taldearen aurka, bigarren partidua 1 eta 2 irabazi zuen Gernikan. Igandean, arratsaldeko 17:30ean hain zuzen, zertarako gai diren erakutsi behar dute txuri-gorriek. Animo eta aupa Elgoibar.

ALBERTO IBAÑEZ

"Merezi izan du arkua berreskuratu" **U**

Alberto Ibañez errestaurazio eta eraikuntza lanetan aritzen den hargina dugu. Eibarren jaio zen baina duela 6 urtetik Sallobente auzoko Garagartza baserrian bizi da. Bere eskuez ari da baserria konpontzen eta txukuntzen. Bere baserria ezezik beste monumentu eta eraikuntza ugari ere berreskuratu ditu eta irakasle modura ere aritu da eskola-lantegietan. Oraingoan Muguruzatarren arkua errestauratu duelako ekarri dugu tarte honetara.

- Gustura al zaude arkua nola geratu den ikusita? Oso gustura. Harri solte batzuetatik abiatuz, puzzlea balitz bezala, arkua osatu dugu nik neuk eta Alberto Rodriguezek, re kolaboratzaileak. Hormigoizko zatia gremioko langileen zeregina izan da. Harriak egoera onean zeuden; merezi zuen arkua errekuperatzea. Teknikoki lan polita izan da, nahiz eta bolumen aldetik ez den oso handia izan. Konplexuena jatorrizko harria imitatzea izan da. Bi hilabete eta erdi eman dugu lanean.

- Ikerketa lan handia egin behar izan duzue. - Dokumentu grafiko askonk ez zegoen, argazki batzuk besterik ez. Aun'erago argazki hobeak lortu genituen, eta falta ziren detaile batzuk osatzeko aukera izan genuen, arkuaren oinarriak, esaterako. Honela jatorrizkoaren oinarri berdina egitea lortu dugu.

- Falta ziren zatiak nola osatu dituzue? - Harri naturalak erabiliz, jatorrizko harrien antzekoenak hautatuz. Oinarriak, bestalde, imitaziozko morteroekin egin ditugu.

- Atzeko alde ez zaio jendeari gehiegi gustatu. - Atzeko alde arkua eusteko euskarri bat da, hormigoizkoa. Arkuaren forma eman zaio


baina besterik ez, arkuaren harri zaharrak garrantzi guztia izan dezan. Ez du zentzurik aurreko zatiaren kopia bat egiteak. Muguruzatarren jatorrizko arkua aurreko partean dago. Atzean kokatu diren leiho formako bi zatiak ere jatorrizkoak dira, lauburuak eta euskal artisauen tailak dituztenak. Lehen, zati hauek arkuaren alboetan zeuden.

- Arkuaren kokapena dela eta, zerbait entzun duzu? Bai, harridura sortu du zenbaiten artean Giza Eskubideen enparantzan kokatu izana. Hori zuzen-

"Arkuarekin espazio integratu bat sortu da, benetan interesgarria dena"

daritza teknikoaren erabakia izan da. Gainera, arkua jatorriz ere hemen inguruan zegoen, beraz...

- Bi zona ezberdin daudela esan daiteke. - Bai. Nire ustez, arkuarekin



Alberto Ibañez errestauratzailea lehen planoan, eta atzean, Muguruzatarren arkua.

espazio integratu bat sortu da; Udaletxeak, elizak, frontoiak eta arkuak osatzen duten espazioa. Espazio benetan interesgarria da. Horrela, Eskubideen plazako etxebizitzaren zona berria eta zona historikoa, Udaletxeak, arkuak etab.ek sortzen dutena, bereiztu egiten dira. Dena dela, ni Udaletxearen atzeko partea berriztearen aldekoa naiz, merezi duen itxura emateko.

- Argi gehiago jarriko zaio monumentuari? - Bai, zeharkako argiak jarriko zaizkio. Gaur egun argi gutxi dauka, arkuaren atzeko aldeko leihotxoaren barruan bakarrik.



Uztailaren 30ean gure bezero guztien artean egindako zozketan 1779 zenbakia izan zen saritua. Argazkian, Begoña Juaristi, zenbakiaren jabea, saria jasotzen.

Losu
bitxidenda

San Bartolome, 4
Tel: 74 40 48

● **Ynazio M^o,e:wdatt cifItimiielkobb** ●

Klaseak IRAILAREN 15ean hasiko dira

TALDEKO KLASEEN ORDU
eta EGUNAK (korala eta
lenguaia musikala) Aita Agirre
plazako eta Merkatu Plazako
iragarki tauletan daude.
Dantza ikastaroa hilaren 17an
hasiko da.

**INSTRUMENTUEI
DAGOKION EZ,**
ostegunean ordutegia
jaso ez zutenei,
astelehenean, hilak 15,
banatuko zaie.

Abesten edo instrumenturen bat jotzen ikasi nahi duen guztiak, Musikeskolan eman dezake izena inolako adin mugarik gabe.




INFORMAZIO GEHIAGO: Aita agirre plaza 3 - 1 (ordutegia: 5-7) Tel: 74 21 45



"Nik gehiago
dakit etxean
daukagunetik"



"Lan aukerak
ugaritu egin
zaizkit hari esker"



"Harreman
zuzenagoa eta
berehalakoa
daukat bezero eta
hornitzaileekin"

- Konexioa
- WEB espazioen alogera
- Zerbitzaile segurua
- Domeinuen gestioa
- PYMES PACK
- WEB orrien diseinua
- Formularioen diseinua
- Programazioa (datu baseekin, bilaketa interaktiboak...

INTERNETi eta/ nosia,

Softlani esker

SOFTLAN Internet
Pedro Muguruza, 13
20870 ELGOIBAR
Tel/Fax: (943) 74 43 61/06 82
[Http://www.softlan.com](http://www.softlan.com)
[E-mail: desarrollo@softlan.com](mailto:desarrollo@softlan.com)
internet@softlan.com

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko ...	743354
Planning-a	742950
Alkoholike Anonirnoak...	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroke Ospitalea	756264
Odol Emaileak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar) ..	902 10 12 10
Taxi geitokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua ..	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea	741050
Udaltzai ngoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	741626
Kiroidegia	744415
Kontsumo Bulegoa ..	743088
Libu rutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza ..	740296
Zaharren Bilokia...	740526

IKASTETXEA

Haur Eskola	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiture	74 02 67
Ezenarro (Meka) ..	74 44 80
Ikastola	74 44 41
L.H.I.	74 44 80
Pilar Ikastetxea ...	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Esparlol	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki irratia	74 34 74

12 ostirala 14 igandea

22:15 ZINEA
"Speed"

19:30-22:15 ZINEA
"Speed"

1 larunata asteleena 19 ostirala

19:30-22:15 ZINEA
"Speed"

22:15 ZINEA
"Speed"

22:15 ZINEA
"Hombres de negro"

• RI ■ III III • • • ■ - IR III TR • K - - III • III ■

NE A



Zuzendaria: Jan De Bont
Antzezleak: Sandra Bullock, Jason Patric, Willem Dafoe

Speed 2

Speed pelikularen bigarren zatia da. Annie-k bizitza lasaia izan nahi du. Bere senargaia polizia da, baina errutinazko eta arriskurik gabeko lana egiten du. Hori da, behintzat, Annie-k uste duena, eliteko polizia baita. Neskak egia jakingo du eta errekonzillazio modura, itsasontzi batean bidaiaria egingo dute. Baina itsasontzi-konpainian lan egiten zuen zoro batek arriskuan jarriko du bidaiaria.

III ZEZZ.....I MEZIEZ.

FARMAZIAK

Eguez Gauez

13 Bidasolo Bidasolo

14 Bidasolo Bidasolo

15 Bidasolo Bidasolo

16 Yudego Yudego

17 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

18 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

19 Etxeberria Zabaleta
(Santa Ana)

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

14 igandea Zabaleta

• Esperimentazioko argazkigintza ikastaroa

Ongarri Argazki Kolektiboak esperimentazioko argazkigintza ikastaroa antolatu du Gorka Salmeron irakaslearen eskutik. Argazkigintzako oinarriko printzipioak ezagutu eta sormena landu nahi dutenei zuzendua dago. Argazkiak ateratzeko unean eta laborategiko prozesuan esperimintatzeko aukera izango da: iraupen luzeko esposizioak, filtroak, mugimenduak, irudien superposizioa, biratuak, etab. Ikastaroak bi asteko iraupena izango du. Klaseak astelehenetik ostiralera bitartean izango dira, egunero 3 ordu. Ordutegia arratsaldeko 6etatik 9ak arte izango da eta ikastaroa hilaren 15ean, astelehena, hasiko da. Izena emateko Jesus Mari Sarasuarekin harremanetan jarri 74 20 50 edo 74 01 25 zenbakietara deituta.



• Marrazketa artistikoko ikastaroa

Egur Arte Tailerrak marrazketa artistikoko ikastaroa emango du hilaren 22an hasita. Urriaren 10era bitarte luzatuko dira klaseak arratsaldeko 6etatik 8ak arte. 30 orduko iraupena izango du. Izena emateko arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean Egur Arte tailerra zuzendu (Urbite plaza).

• Begirale ikastaroa Atxutxiamaiak antolatuta

Elgoibarko Izarra Elkarteko Atxutxiamaiak Begirale Taldeak begirale ikastaroa antolatu du Elgoibarren. Ikastaroa hilaren 27an hasiko da eta 98ko maiatzaren 16ra arte luzatuko. Hilaren 15etik 19ra bitartean izena eman ahal izango da Elgoibarko Izarrara zuzenduz edo 74 16 26ra deituta. Ikastaroaren matrikula 30.000 pta.koa da. Matrikularen zati handi bat Ianorduen bidez finantziatu ahal izango da. Ikastaroa Donostiako Urtxintxa Begirale Eskolak emango du eta titulua Eusko Jaurritzak homologatutakoa izango da.

O t X/4

1-



BEGIRALE
TALDEA



- Maila guztiak eta EGA
- Berba egiteko, leitzeko eta eskribitzeko ikastaroak

LANGABETU ETA IKASLEEK MATRIKULA *uoia&pa*

ERDIA UDALAK ORDAINDUTA



Plaza Txikia, 3
Tel: 74 13 32

KAROBI TABERNA



Salerosketak

• **SALDU** •

- Vespa motorra saltzen dut. **909 82 22 59**
- Mobilete bat salgai. Egoera eta prezio onean dago. **13. 74 17 26**
- 120 baxu eta basseti dituen Bosini esku soinua saltzen da prezio onean. Ia erabili gabe, egoera onean. **s 75 61 33 (gauzez).**
- Egurrezko berogailu baten kaldera eta butanozko berogailua salgai. **a. 74 41 28 (Tere, gauzez).**
- 1,5 metroko ohea egiten den sofa saltzen dut. **a 7425 15**
- Kitarra elektrikoa eta anplia salgai prezio onean. 100 watioko Marshall Valvestatea da. Egoera onean. **tr 74 19 26 (Asier)**
- **MIDI** furgoneta berria salgai. Kanpinerako aproposa. Bizikletak eramateko dauka. Toldoa aukeratan. **tr 74 27 48 (Arratsalde)**
- **Kanpin handia, familiarra salgai. u. 74 27 48 (Tetatik aurrera)**

- **GAME BOY**-rako Master Karateka eta Tetris salgai. Prezio interesgarria. **te 74 39 39**
- Merkatu plazan liburutegi-kioskoa traspasatzen dut. **nr 74 25 17 (Amaia)**
- Aukera interesgarria: Benecchi Superligera eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garantia eta estrak. **s. 74 03 92 (Dani)**

Bestelakoak

- Familia bat edo bi behar dira urrian zehar Elgoibarko Lanbide Eskolara praktikak egitera datozen Alemaniako bi gazte etxean hartzeko. Izeria eman edo datu gehiago jasotzeko **74 44 80 telefonora** deitu. (Mari Asun)
- Irailaren leian Urasandiko erre-bueltan Citroen C-15 eta Ford Orion autoen artean izan zen istripua ikusi zuena **jar dadila hermanetan Udaltzaingoarekin**. Milla esker.
- Txiki egunean Mendaroko Landa erretegiaren **emakumezko jorle grisa** agertu zen.
- Eskusoinuak konpontzen ditut merke. Modelo guztiak. **n• 47 00 01 (arratsaldeko 5etatik 7etara, ostegunetan izan ez.ik).**
- Bergarara goizez joateko autoa behar dugu. Goizeko 8etarako Bergaran egon behar dugu. **a 74 34 99 (Eulali) eta 74 23 28 (Alaitz).**

Etxebizitzak

- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekna, garbigailua eta telebista ditu eta hondartzako lehen ilaran dago. **tr 74 20 31.**
- **Donostian, Artzai Onaren** ondolan, pisua konpartitzeko pertsona hat behar dugu. **s 74 26 57 (Leire)**
- Etxe eguzkitsua salgai Sigman, altz, ariak eta guzti. **tr 74 20 78.**
- Pisua edo buhardila hat alokatuko nuke. Ez zait inporta herritik urrun badago. **tr 74 43 10 Cristobal.**
- Elgoibarren pisua edo gela hat alokatu nahi dut. **tr 74 40 40 (M. Eugenia)**
- Maiatzetik irailera bitartean etxea alokatzen dut Jakan. **tr 74 15 22**
- **Alcoceber-en apartamentua** alokatzen da irailean. **a 74 22 08**

Lana

• **ESKAINITZA***

- Taberna batean eguneroko garbiketarako egiteko eta orduka barran edo sukaldean aritzeko pertsona bat behar da. **a 74 37 71**
- Neskatila bat zaintzeko neska euskalduna behar da. **tr 74 41 54 (Mertxe. Gauzez).**
- Taherna bat alokatzen da ezin delako atenditu. Bezero onak ditu. **ir 74 03 92**
- Bi pertsona nagusi zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara. **tr 74 29 30 (arratsaldeko 3etatik 4etara).**

• **ESKAERA** •

- Emakume hat etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko eskaintzen da. **tr 74 34 06**
- **Neska euskaldunak umeak zainduko lituzke. Esperientzia** clauka. **xr 74 44 47 (Naiara. Arratsalde)**:
- 25 urteko neska eskaintzen da gauetan pertsona nagusiak zaintzeko. **Esperientziaduna. tr 74 36 38 (Arrate)**
- Neska euskalduna eskaintzen da etxebizitzak, portalak eta abar garbitzeko. Esperientziaduna. **s. 74 06 09 (Marisabel)**
- Etxea garbitzeko emakume hat eskaintzen da. **a 74 21 88**
- 26 urteko neska tabernan lan egingo luke. Esperientziarekin. **a 75 20 69 (Kristina)**

Garajeak

- Garajea alokatzen da San Roken. **tr 74 11 61**
- Marradun garajea alokatzen dut San Roken, Karakate elkartearen azpian. **a 74 18 37**
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean, **tr 74 05 49 / 74 09 09**
- Treubide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko beste. Sohrepisoa dauka. **tr 74 01 33**
- Urasandin garaje itxia saltzen da. **s 74 08 63**
- Garaje itxia salgai Arregitorren. **tr 75 51 77**
- Urasandin garajea dut alokatzeko. Marraduna. **s 74 31 07**
- Garajea salgai Juan Mugerza kalean. **ir 74 12 04 (20:00-22:00)**
- Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. **n. 74 12 53**

Partikularrak

- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak ematen dira. **tr 74 43 98 (Ihaki)**
- Latineko klaseak hartuko nituzke. **tr 74 12 64**
- Ingeleseko partikularrak ematen ditut. **a 74 15 82 (Eduardo)**
- **Fisika eta matematika klase** partikularrak ematen ditut. **tr 74 13 34 (Andoni)**
- Frantses klaseak ematen ditut. **tr 74 04 59**
- Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. **74 09 72 (Garikoitz)**
- Matematika, kontabilitatea, praktika administratiiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde rouguatuak. Esperientzia dut. **tr 74 21 65 (Javi)**

Agurrak

- Zorionak **Kaku** igandean, hilak 14, uneak beteko dituzulako. Zure iloha Josuren partez. Egun on hat igaro dezazula!
- Zorionak **Jon Munini** hilaren 9an 12 urte bete zituelako. Guraso eta arrebarren partez.



• Zorionak **Gorane Aiestari** abuztuaren 28an bi urte bete zituelako. Gurasoen eta familia-koen partez.




• Zorionak **Imanol Solupe eta Rosarlo Zulaikari** joan den ostiralean ospatu zituzten urrezko ez-taietan eskaini ziguten egun zora-garriagatik. Familiaren partez.



• Zorionak **MJesus Merino Yesteri** uztailean Ingalaterrako Norwich School of Art and Design unibersitatean lizentziatu zelako eta Diseinu Grafiko Publizitarioan Bachelor of Arts (Ohorezko Matrikula) lortu zuelako. Bere familiaren partez.




• Zorionak **Mikeli irailaren** 10ean sei urte hete zituelako. Guraso eta aitona-amonen partez.



• Zorionak **Miriam Sanchez** irailaren San urteak bete zituelako. Paco, Begofta, Mireu eta Amaiairen partez.



• Zorionak **Unai Diezi hilaren** leian 2 urte hete zituelako. Guraso eta aitonen partez.




• Gure etxeko **LOREA** hadixe Berriko zelai berdeetara. Halere, ez ahaztu gurean beti egongo dela norbait zuri atea zabalteko desiatzen. Ondo pasa ezkontza egunean eta izan zaitezte zoriontsuak Mikel eta biok. Familia osoaren partez.



Hizkuntza

Eskola



Titulo ofiziala

- Irakasle lizentziatu eta natiboak
- Maila neurtzeko azterketak euskaraz
- Administrazioko perfilekin konbalidazioa

Ikastaro osoa 6.810 pta.

Zeren zain zaude matrikula egiteko?

GARATE

Jantzidenda

*1, mbll 15, Asteielielle aorrerd,
beherapemel dZkell eguha oda keneko woda berril*



San Bartolome, 13 Tel: 74 11 29